

Amurrioko EAJ-PSE Gobernuaren lehen 100 egunen balantzea

Lau hilabete igaro dira udal hauteskundeak egin zirenetik, eta ehun egun baino gehiago Udal Gobernuak sortu zenetik. Edozein gobernuri ehun egun ematen zaizkio bere jarduerak baloratu aurretik. Jakin badakigunez azken balorazioa amurriotarren esku geratzen dela lau urte barru, orain arte ikusitakoagatik gure kezka azaldu nahi dugu.

Legegintzaldia Amurrion inoiz ikusi ez den modu batean hasi zen: EH Bildu Tokiko Gobernu Batzarretik kanporatuz, organo horretan beti parte hartzen aritu baikin. EAJk eta PSEk ez zuten inolako eragozpenik izan neurri hori hartzeko orduan, 1847 lagunen botoa kanpoan utziz. Hala ere, badirudi distiratzeko duen guztia ez dela urrea; izan ere, gobernu garden baten lehen zeregina, hau da, legegintzaldiko plan bat diseinatzea, oraindik ez da egin. Urak egiten hasi dira?

Legegintzaldia ezin zela okerrago hasi uste genuenean, eta hauteskundeak egin zirenetik hilabete bat ere igaro ez zenean... Nork pentsa zezakeen EAJk Euskara Teknikariaren plaza ezabatuko zuela?

EH Bilduk esperientzia, gaitasuna eta, batez ere, erantzukizuna agindu zituen. Horregatik begiratzen diogu etorkizunari kezka, herritarrentzako proposamen eta irtenbideekin. Ildo horretan, ez gatoz bat gobernu-taldeak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) edo Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) % 5 igo izanarekin. Ez da ezezko populista bat, ezezko errealista bat da, kontua ez baita biltzeagatik biltzea, kontua da zergak neurri justu eta beharrezkoan eguneratzea udal kaudimenduna izateko, eta hori % 2,5eko igoerarekin lor genezakeen. Anbizio handiagoa izan genezake eta behingoz Amurrioko etxebizitza hutsen arazoari heldu, hau baita alokairuaren prezioari eragiten duena.

Oposizioeko talde nagusi gisa, udal honen jarduerak fiskalizatzeaz gain, lehen egunetik ari gara lanean Amurriok dituen lehentasunen inguruan, orain arte egin dugun bezala, herritarrekin eta udalerrira aberasten duten elkarte eta gizarte-erakundeekin batera. Mugitzen gaituena pertsonak direlako.

Horregatik, Amurrioko EH Bilduk oposizio baliagarria eta eraikitzailea egiteko konpromisoa hartu du, gobernuari eskatuz euskararen aldeko politika sozial eta feministak eta Amurrioko herritar guztien bizitza hobetzeko balio duen guztia gara ditzala.

Balance de los primeros 100 días del Gobierno PNV-PSE de Amurrio

Han pasado ya cuatro meses desde las elecciones municipales y más de cien días desde la creación del Gobierno municipal. A cualquier Gobierno se le conceden cien días antes de valorar su actividad. Siendo conscientes de que la última valoración queda en manos de los y las amurriarras dentro de cuatro años, queremos mostrar nuestra preocupación por lo visto hasta ahora.

La legislatura comenzó de una manera jamás vista antes en Amurrio: expulsando a EH Bildu de la Junta de Gobierno Local, órgano de decisión en el que siempre habíamos estado participando. El PNV y PSE no tuvieron ningún inconveniente a la hora de adoptar esa medida, dejando fuera el voto de 1847 personas. Sin embargo, parece que no es oro todo lo que reluce, ya que la primera tarea de un gobierno transparente, es decir, la de diseñar un Plan de Legislatura sigue sin realizarse. ¿Empiezan a hacer aguas?

Cuando creíamos que no se podía haber empezado con peor pie la legislatura y cuando no había pasado ni un mes de las elecciones... ¿Quién podía imaginar que el PNV eliminaría la plaza de Técnico de Euskara?

Desde EH Bildu prometimos experiencia, capacidad y sobre todo responsabilidad. Es por eso por lo que miramos al futuro con preocupación, con propuestas y soluciones para la ciudadanía. En este sentido, no compartimos que el Equipo de Gobierno haya subido un 5% el Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI) o el Impuesto de Vehículos (IVTM). No es una negativa populista, es una negativa realista ya que no se trata de recaudar por recaudar, se trata de actualizar los impuestos en la medida justa y necesaria para tener un ayuntamiento solvente y eso perfectamente lo podríamos haber conseguido con una subida del 2,5%. Podríamos tener mayor ambición y abordar de una vez la problemática de la vivienda vacía en Amurrio, ya que es lo que condiciona los precios del alquiler.

Como grupo mayoritario de la oposición, además de fiscalizar la actividad de este Ayuntamiento, estamos trabajando desde el primer día sobre las prioridades que tiene Amurrio, tal y como hemos hecho hasta ahora, junto con la ciudadanía y las asociaciones y organizaciones sociales que enriquecen el municipio. Porque lo que nos mueve son las personas.

Es por eso por lo que EH Bildu Amurrio sigue comprometido en hacer una oposición útil y que sea constructiva, instando al gobierno a promover el desarrollo de políticas sociales, feministas, a favor del euskera, y de todo aquello que sirva para mejorar la vida de toda la ciudadanía de Amurrio.